

B

BARREN

Arrate Zubia, Marimendi elkarteko kidea

Sasoï onean aldaparik ez

5

Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92

www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)

Zorrak kitatzen

Aupa, Juanmari!

Beti idaztekuan, baiña... Alperkerixiak edo zer esan ez jakitxiak gaur arte luzatu dau bixon arteko etena. Hau da ganoria! Ze kolore daka Lugon neguak? Elgoibarren kerixonduak lorán jarri dattu eguzkixak eta neri ere, igande goiz hontan, nagixak atera didaz. Galiziará jun-etorrixan dabizen erromesen eskutik jakin dot, ikasten ere hasitta zaurela. Uuui... peligro!

Gurian, ez da eguzkixa negua berotzen daban barrara. Martxuaren 9ak guztixari gaiña hartu dio. Atxiloketek etenik ez dakate, ixa zortzirehun zerate lotutakuak. PNV, NaBai, EA, EB eta Aralarrekuak, kalkulagailuak eskuan, Madrillera begira. Handik, independen-tziarako bidia itxi nahi digue eta hortarako, lagun ezin hobiak aurkittu dittue. Marko demokratiko bat eskatu eta defendatzia gogotik ordainarazi nahi digue, demokrazia eza eta eskubidien ukazua estali ezindakuak diranian. Salbuespen egoera honi, *stop* esateko ordua irixi da. Igandian planto egittera guaz. Abstentzioa. Ez gaittue ixilduko.

Errepresio guzti honen aurrian, pauso bat aurrera eman daban jendia da gure negua argitzen daban benetako eguzkixa. Kartzelan, kalia, mobilizazietan eta eguneroko lanian, milaka gera elkar berotzen degun izarrak.

Holako altxorrik ez dao munduan. Aipamen berezixa merezi debe gaztienek. Gaztarua lapurtu nahixan, hamaika dira gartzelan sartu dittuenak. Etengabe jazarrixak, jipoittuak eta mehatxatuak izanagattik, ez dira kikiltzen. Elgoibarren ere, errepi-dia mozte hutsagattik, Audientzia Nazionala ezagututakuak badira (Aupa gaztia!).

Hurrengua, elgoibartarrekin konpartitu gabe egingo dogu, baina oingua aukera ona iruditu jata, gitxienez sellotan aurrezteko. Ia ez dan etena berriz hainbeste luzatzen.

Ondo segi.

Iñaki Bengoetxea



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Errepresio guzti honen aurrian, pauso bat aurrera eman daban jendiak gure negua argitzen dau".

MARTXOAREN 9an HAUTESKUNDE OROKORRAK



Elgoibar eta Mendaroko emaitzak
DOMEKA GAUEAN

Euskaldunoi berdín zaigu hauteskundeak
PSOEk ala PPK irabazten baditu?

Herritarren erantzunak
BIDEO INKESTAN



www.elgoiBARREN.net



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



kontxu odrizola

Azalpen gehiegi eman behar izan ditu azken urteotan Kontxu Odrizolak Maria Luisaren inguruan, eta are gehiago tele-saila laga duenetik. Elkarrizketa egiteko baldintza bat jarri du, “betiko gaiez” ez hitz egitea. Betiko gai hori, ezinbestean, Goenkale da, hain ezagun bihurtu duen saioa. Atzera begiratu beharrean, orainarekin gozatu nahi du eta lasai bizi, lagunekin hizketan jardun, bidaiatu eta aurrera egin. Libre sentitu nahi du.

Andoni Iturbe

“Lasaitzen nabil, aspertzeko denbora ere ez dut eduki orain arte”



Lasai, ez dugu betiko gaiez hitz egingo...

Nazkatuta nago. Ezetza ematen hasita nago, eta ez daukat ezer gehiago esateko. Nire burua ikusten aspertuta nago.

Elgoibar ezagutzen duzu?

Aspaldian ez naiz egon, lehen gaztetan gehiagotan joaten nintzen. Nire lagun bat han ezkondu zen, eta Elgoibarren bizi da. Baina autopistak hori du, Donostiatik Bilbora joaten naizela. Lana dela eta ez dela, Donostian bizi naiz eta gauza gehienak hemen ditut.

Inderberituta dago Kontxu Odrizola?

Orain lasaitzen nabil, aspertzeko denbora ere ez dut izan orain arte. Aspertu zer den

sentitu eta gero, gerokoak. Paseotxoak egiten nabil, eta nire aspaldiko lagunekin solasaldiak egiten. Hori zoragarria da. Hori da niretzat gauzarik aberasgarriena eta ederrena. **Ibilbide luzeko aktorea zara. Jendeak maite ditu aktoreak? Zer sentitzen duzu “komiko” hitza entzutean?**

Ez garela maitatuak. Baina komiko hitza oso polita da. Uste dut errespetu pixka bat behar zaigula. Futbolariak eta pilotariak bezalaxe aktoreak jaio egiten dira.

Zu ere bai...

Bai, eta harro nago gainera.

Zure bizitzako sasoirik politena zein izan da?

Oraingoa, bai, ni ez naiz atzera begira ibiltzen den horietakoa, eta ez naiz hasiko esaten



pasatutako garaiak hobeak zirela. Horiek pasatu dira, eta etorkizuna nolakoa izango den ez dakigu. Egunerokoak balio du. Ez dut nostalgia punturik.

Baina txori txiki batek esan dit fadoak gustatzen zaizkizula...

Bai, egia da, fadoak gustatzen zaizkit, Portugal asko maite dudalako. Lagun minak ditut han, eta gainera laster joango naiz hara. Oso jende jatorra daukat Portugalen.

Bidaiatzea atsegin duzu?

Betidanik, toki askotan egondakoa naiz. Europa iparraldean ez dut ezagutzen baina gainontzekoa bai. Ameriketara era joan naiz hiru bat aldiz. Maroko aldera bi edo hiru aldiz joan naiz, eta Mediterraneo aldean ere ibilitakoa naiz.

Ez zaitugu ikusiko, hortaz, aerobica egiten Benidormen...

Ez, ez. Baina parapentea eginda nago.

Zu?

Bai. Jende gutxi daki hori. Lagunek-eta badakite. Alabak eta biok egin genuen. Orduan 24 urte izango zituen. Ederra izan zen, ez galdetu zenbat metrotatik izan zen, baina zoragarria izan zen. Beldur pixka bat izan nuen hasieran.

Zein lekutan?

Asian ibili nintzanean.

Etxean ez zara itotzen, orduan?

Ez, etxeoandre lanetan gustura nabil, sukaldetan, gauzak txukuntzen... Horiek gustatzen zaizkit. Gainera presarik gabe. Badakizu zer den hori, lasai-lasai egotea?

Zinera joaten zara?

Garai batean gehiago, orain aurrez ahalegin-tzen naiz jakiten pelikulak merezi duen ala ez. Azkena hainbeste oscar irabazi dituen *No es país para viejos* ikusi dut. Egian mo-

tza izango naiz, baina salto bazuk ez daude hain ondo azalduta. Oso ondo dago Bardem gaiztoarena egiten.

Euskaraz ere ari dira filmak egiten...

Bai, hori ondo dago eta jarrai dezala. Baina, zoritxarrez, jendeak ez du arriskatu nahi eta beti esaten dutena: Euskal Herria txikia dela eta euskaraz egiteak ez duela merezi, hori eta bestea. Baina saiatu behar da gutxienez.

Zuk Hamaseigarrean aidanez filman lan egin ondoren, uste zenuen gehiagotan parte hartuko zenuela?

Bai, hura izan zen izugarriko oroitzapena eta benetan gozagarria izan zen. Opari bat izan zen, orain denborarekin begiratuta, hura zortea izan nuen.

Ez duzu zure ibilbide profesionala planifikatu, orduan?

Herri honetan ez dago planifikatzeko aukerarik. Gaztea izanez gero kanpora joateko aukera beti dago, gainera esan liteke kanpoko apustua egiteak merezi duela, baina Euskal Herrian bizi nahi baduzu, hor dago komeria. Aktore ona edo txarra izatea oso subjektiboa da. Misterio kontua. Etxe inguruan lan egitea izugarriko oparia da.

Kanpora joan diren artean, Barbara Goenaga dago. Jarraitu duzu bere ibilbidea Goenkale laga zuenetik?

Karrera ederra egingo du zorte pixka batekin. Gazte hasi behar da mundu honetan.

Miren Iburguren ere Madrilan dabil...

Nire neskamea izan zen Goenkalen eta begira orain *Escenas de Matrimonio*-n...

Ez dut uste *Escenas de Matrimonio* ikusteak grazia askorik egingo dizunik...

Batere ez. Dagoenari heldu behar zaio besterik ez dagoenean.

Ibilbidea

Kontxu Odrioloza Azpeitian jaio zen 1945ean, nahiz eta askorentzat Arralden jaiotako Maria Luisa izan den. Aipatu izan du ez lukeela bizi guztirako Maria Luisa etiketarekin bizi nahi. Hamalau urtean aritu da *Goenkale* telesailean Maria Luisa Galardiren paperean baina ez du erretiratzeko asmorik. Aktore izan aurretik, irakasle izan zen, baina aktore izateko jaio zenez, tinko eutsi dio bere zaletasunari. Hiru haurren ama zela hasi zen interpretazio-klaseak hartzen eta Eusko Jaurlaritzak irekitako lehen antzerki eskolan aritu zen.

Azpetitik Donostiara bizitzera joan zenean, ETB irekitzeaz zegoen eta Herri Irratian aritu zen umeentzako saioak egiten. Miramomen *Bai horixe*-n aritu zen baina *Goenkale*-rekin lortu zuen merezitako sona. Andoainen, Sorabilako Martin de Tours deunaren elizan grabatutako hiletalitik bategin esan zion agur ikusleari. Euskal Herriko etxeoandrerik ezagunena bihurtu zen, nahiz eta pertsonaiarekin zerikusi gutxi izan. Berak jenio bizia erantsi zion. "Maria Luisa oso sutua eta jenio bizikoa da. Eta Kontxuk ere jenio bizia dauka. Egiarekin ibiltzea gustatzen zait niri. Nik gezurra esango dut ondo ordaintzen didatenean, eta gero eta gehiago ordaindu, orduan eta hobeto esango dut gezurra. Hori da nire lana. Baina, bizitza errealean, nik ez dakit gezurrik esaten", adierazi izan du behin eta berriz. Hiru pelikulatan ere parte hartutakoa du momentuz: *Albaniaren konkista*, *Gerra karlisten kronika* eta *Hamaseigarrean aidanez*.

**“Parapentea egin genuen Asian alaba eta biok;
beldur pixka bat pasatu nuen hasieran”**



Osakidetzaren zerbitzuak

Osakidetzaren grebak leku handia hartu du azkenaldian komunikabideetan. Greba horren atzean ezkutatzen dena jakin nahi izan dugu gaur. Herritar bat eta Mendaroko Ospitaleko gerentea jarri ditugu aurrez aurre.

Ainhoa Andonegi

ZU

GORKA SARASOLA

Mendaroko Ospitaleko gerentea

“Itxaron zerrendei begiratzen badiegu, orain 5 urte baino askoz hobeto gaude”

Nolako eragina izan du Osakidetzaren grebak?

Hilabete asko daramatzagu gai honekin eta hasierako indarra galdu egin duela esan daiteke. Greba mediatikoa izan da, batez ere. Komunikabideetan oihartzun handia izan du, baina Mendaroko Ospitaleak, esate baterako, “normal” jardun du. Kirofanoetan izan du eraginik handiena, baina kontsulta oso gutxi geratu dira bertan behera. Sindikatuak ondo antolatuta dituzte lanuzteak. Gehienak lanuzte laburrak izan dira eta horrek funtzionamenduan gutxiago eragiten du. Erabiltzaileei ez die kalte handirik eragin eta, azken batean, eurak dira garrantzitsuenak.

Osakidetzak gainezka egin duela uste duzu?

Ez dut uste. Denboraldiak daude; istripu egun bat, gripe boladak... horrelakoetan jendez gainezka izaten dira zerbitzu guztiak, baina ezin daiteke esan Osakidetzak gainezka egin duenik. Itxaronzerrendei begiratzen badiegu orain dela bost urte baino askoz hobeto gaude. Araudiak esaten du ebakuntza bat egiteko itxaron beharreko epea bi hilabetekoa dela eta hori betetzen dugu. Kasuren bat egongo da gehiago itxaron beharra izan duena, baina 48-52 eguneko itxaronzerredak ditugu. Araudia baino hobeto

gaude. Espezialitate batzutan gehiago itxaron behar da, eskaria handiago delako.

Elgoibarko emakumeak ez daude pozik ginekologia zerbitzuarekin. Ia urtebete itxaron behar dute azterketa medikua egiteko...

Bai, aspaldi hasi ziren Elgoibarko emakumeak sinadurak biltzen eta saiatu gara arazo horri konpontzen. Zazpi ginekologo ditugu eskualderako. Elgoibarrera astean bi aldiz joaten da ginekologoa eta bi emagin daude. Ohiko azterketa medikoak emaginak egin ditzake eta egiten ditu. Ez ditugu txekoak egiten, gure lana sendatzea da eta apur bat, prebentzioa. Badaezpadako azterketak ez dira inarrizko beharrak; ondo daude, baina emaginak egin ditzake.

Mendaroko Ospitalea txiki geratu da?

Eskualde zabala daukagu eta txiki geratu da Ospitala. Handitzeko hiru proiektu ditugu eskuartean eta obrak laster hasiko direla uste dugu. Etorkizunari begira handitzen joan behar dugu. Larrialdien gunea handitu egin behar dugu; eraikin berri bat egingo dugu kontsulta eta ohe gehiago jartzeko, eta eguneko ebakuntzen gunean 14 ohe gehiago jarriko ditugu. Maiatzean, bestalde, etxeko ospitalizazioa jarriko dugu martxan, hau da, mediku eta erizainak gaixoen etxetara joango dira.

gainezka egin duela uste duzu?

FATIMA

LOPEZ

Erabiltzailea



“Mendaroko larrialdi zerbitzuan oso gaizki tratatu ninduen medikuak”

Osakidetzaren grebak kalterik eragin dizu?

Ez. Errehabilitazioa neukan greba egun batean eta erizainak konzentrazioan ikusi nituen, baina nik ez nuen arazorik eduki, medikuek ez zuten grebarik egin, eta nire kontsulta bere horretan gelditu zen. Ni bezala jende mordoa zegoen han, eta kontsulta gehienak pasatu zituzten, nahiz eta erizain batzuk greba egin.

Medikuarengana joateko denbora luzez zain egoterik tokatu zaizu?

Zorionez ez naiz medikuarengana askotan joaten eta ez dut horrelako egoerarik bizi. Noizean behin zain egotea tokatu zait, baina ez gehiegi. Errezeta bila joaten naiz, batez ere, ambulatiora. Medikuek ordenagailuan jartzen du gaixo bakoitzak zer hartu behar duen eta erizainek ematen dituzte errezetak. Lehen medikuak eman behar zituen derrigorrez eta askoz denbora gehiago egon behar izaten genuen zain. Alde horretatik, hobeto gaude. Nire senarra gehiago joaten da medikuarengana eta alde batetik bestera bueltaka ibiltzen da. Jende asko dago, eta zain egotea tokatzen zaio.

Larrialdiren bat izan duzunean, nola hartu zaituzte?

Oso gaizki, Mendaroko larrialdi zerbitzuan esperientzia oso txarra izan nuen. Han zegoen medikuak oso gaizki tratatu ninduen. Beso-

ko mina neukan, ezin nuen besoa mugitu eta oso bortizki tratatu ninduen. Ez dut sekula ahaztuko. Larrialdietan jende asko egoten da beti, denbora luzez egon behar izaten da zain. Larrialdien gunea beteta dago.

Osakidetza barruan, botatzen duzu zerbitzuren bat faltan?

Dentista. Ahoa zaintzea oso garrantzitsua da, ahotik jaten dugu eta hortik bizi gara. Osakidetzan hortzak atera bakarrik egiten dituzte, ez dute besterik egiten eta hori oso gutxi da. Dentista pribatuak oso garesti daude eta nire ustez. Osakidetzak eman beharko luke zerbitzu hori. Dena doan ez bada ere, merkeago bai behintzat.

Ginekologia azterketa bat egiteko ia urtebete egon behar da zain El-goibarko ambulatarioan...

Niri ez zait tokatu, baina denbora gehiegi da. Prebentzioa ezinbestekoa da eta ginekologia azterketak oso garrantzitsuak dira emakumearentzat. Nire ustez, gizonak ere egin beharko lituzkete azterketak, kutsaketak ebitatzeko.

Mediku-aseguru pribatua egiterik pentsatu duzu inoiz?

Bai noski! Dirua izango banu egingo nuke, baina ezin dut ordaindu. Osakidetzak asko dauka hobetzeko oraindik.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Independentziaren alde, gazteok abstentzioa!

Euskal Herriko egoera antidemokratiakoaren erantzulea konstituzioa da, berak ahalbidetzen baitu gaur egungo marko juridiko politikoa, eta horrek dakartzan eskubide urraketak. Agerikoa da marko horren agorpena eta beste marko berri bat sortzearen beharra. Horren adierazle argia da Euskal Herriak bizi duen gatazka hainbat arlotan (AHT, etxebizitza, Bologna, euskal curriculumaren falta...). PNV eta PSOE dira egoera hau ahalbidetzen dutenak. PSOE ez dago Euskal Herriko eskubideak ukatzen dituen konstituzioa aldatzeko prest eta PNVk, bere interes ekonomikoengatik, ez du konstituzioaren kontrahatz bat mugitzeko asmorik. Beraz, beste 30 urte luzez kondenatu nahi gaituzte eskubideen urraketara, martxan jarri duten operazio politikoaren bidez.

Helburua estatutu fartsa berri bat sortzea da, konstituzioaren legediaren menpean eta beti ere, euren interes ekonomikoaren alde, independentziaren aukerari ateak itxiz. Operazio politiko hori aurrera eramateko, espainiar eta frantses estatuek gerra estrategia jarri dute martxan, independentziaren alde lana egiten duen oro kriminalizatu eta kartzelaratu. 18/98 makrosumariora, Batasunako mahai nazionala kartzelaratu, Segi gazte erakundeak terrorista izendatu, hainbat eta hainbat atxiloteta, Audientzia Nazionaleko zizazioak, isunak, torturak... Azken erasoa ANVren suspentsioa izan da, independentziaren alde eta marko demokratikoaren alde lana egiten duen alderdi politiko bakarra hauteskundeetatik kanporatu. Baina guk euskal estatu sozialista eraikitzen

jarraitu behar dugu eta horretarako estatu espainiar faxistari eta gatazkara eta eskubide urraketara garamatzen konstituzioaren aurkako borroka egin behar dugu. Espainiar hauteskundeetan abstentzioa eta boikota! Hauteskundeak deslegitimizatu eta Euskal Herriaren eta independentziaren alde lanean jarraituko dugu. Independentziaren aldeko borrokan... martxoaren 9an gazteok abstentzioa!

Elgoibarko Segi ☞

Martxoak 8

Iritsi da martxoaren 8a eta aurten ere izango dira Elgoibarren hainbat ekimen emakumeak biltzeko. Sistema patriarkalak itotzen gaituela eta denok zapaldu eta mugatzen gaituela esan beharko dugu berriro ere. Begiak ireki eta feminismoaren alde egin beharko dugula, gauzak aldatu nahi baditugu. Parekidetasunaren alde, gizon eta emakumeen artean harreman mota berriak sortu beharko ditugula. Emakumeak eraldakuntzaren subjektu izan behar dugu. Egunotan izango ditugu biltzeko guneak eta uneak, bai Haizeak antolatutako ekintzetan, bai Gazte Informazio Guneak antolatutako ekintzetan eta bai beste hainbat herritarrekin sortutako egitasmoetan. Larunbatean 13:00etan kontzentrazioa egingo da Plaza Handian, parekidetasunaren alde. Han edo hemen, nonbaiten aurkituko gara, biltzeko prest, gure eskubideengatik borrokatzeko prest. Lehen hitzordua, gaur 20:30tan Kultur Etxeko hitzaldi gela, ipuintxoak entzuteko. Animatu eta hurbildu!

Lore Bereziartua, Miren Guilló eta beste emakume batzuk ☞

“Todo por la pasta”

Aspaldian erakutsi digu PNVk zertarako dagoen prest bere boterea mantentzeko, beti ere onura ekonomikoak helburu. Euskadiko Negoziarioen Alderdiak bere egiten du Guardia Zibilaren lema zahararren moldaketa hau: “Todo por la pasta” eta horretarako erabiltzen ditu Ertzaintza eta EITB: independentistok zapuzteko eta isilarazteko (PSOErekin prestatzen ari den iruzur erregionalista kolokan jar dezakeen sektore soziala). Horren eredu garbia dira aste honetako atxilotetak. Gorka Lupiáñez gazte durangarrari Guardia Zibilak egindako torturen bidez (EITBk ezkutatu-ko informazioa) agertu omen ziren bi gazteren izenak. Haien harremanetan jarri ziren Espainiako Auzitegi Nazionalarekin eta zitazioaren zain zeuden. Hala ere, Javier Balza PNVko Barne Sailburuak gazte horiek atxilotzera bidali zuen Ertzaintza eta garrantzi izugarriko operaziozat saldu digu: ETAr egindako kolpe gogorra, Guardia Zibilak bilatzen zituen terrorista arrisku-tsunak... Ekintza horrek hainbat politikoren txaloak eta zorionak jaso zituen. Hiru egunetara atxilotuak aske eta fidantzarik gabe utzi ditu epaileak. Zer erantzuten dio horrek? Kanpainan botoak irabazteko propaganda izan da? Hori izango zen PNVren asmoa, baina badirudi PSOEren azpijokoa dagoela atzetik, gozoki pozoi-tua, PNV eta Ertzaintza leku txarrean uzteko. Zertan ibiliko dira PNV eta PSOE labankada horiek elkarri emateko? Ezer onik ez Euskal Herriaretat. Igandean botoa ematea salbuespen egoera hau, torturak, ilegalizazioak eta iruzur hau guztia ontzat ematea da. Nik, abstentzioa!

Juan Karlos Markos ☞

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Eva Garcia



Miriam Garcia



Zer iruditzen zaizu, Miriam, BARREN-eko aldaketa-garai berri honetan parte hartzea? Mundu guztiak aldaketak behar ditu. Pentsatu une batez gure bizitzan aldatzen ditugun gauza guztiak. Lan ez, etxez, kotxez eta telefonoz aldatzen dugu. Janariz, orrazkeraz eta izenez aldatzen dugu. Helburuz, iritziz eta jarreraz. Bikotez aldatzen dugu.

Egun batean, ohetik altxa eta mundua aldatzeko gai sentitzen gara. Hurrengo egunean, berriz, ez dugu indarririk kuleraz aldatzeko ere.

Zenbatetan egon garen une apropos horren zain, bizitzaz aldatu ahal izateko... Ez al gara ohartzen, agian, horretarako edonoiz izan litekela momentu ona?

“Zenbatetan egon garen une apropos horren zain, bizitzaz aldatu ahal izateko...”

Dirudienez, aldaketak onak, zuzenak eta egokiak dira.

Hau dena gure eguneroko bizitzan aplikatzeko zailtasunaren aurrean, teoriak zera esaten du: une honetan, zure bizitzarekin edozein arlotan pozik ez bazaude, aldatzeko aukera (eta beharra, esango nuke nik) duzula. Ez gara zuhaitzak. Gaitasun horrekin jaiokak gara.

Aukerez betetako mundu honetan, makina bat gauzaren artean aukeratzeko gai gara. Norbaitek, edonoiz, arrazoi horrengatik belnaldi zoriotsuena izan beharko genukeela pentsatu bazuen ere, oso oker zebilela uste dut. Zenbat eta gehiago eduki, hainbat eta gehiago nahi dugu. Erabaki batekin, zure etorkizun guztia hipotekatu dezakezu. Gure bizitza etengabe korapilatzen da... eta berdin da Elgoibarren, Dublinen edo Milanen bizitzea.

Ilberria eta ilbetea. Uda eta negua. Itsasgora eta itsasbehera. Goiza eta gaua. Fijatzen bazara gauza guztiak zikloka mugitzen dira. Hasi eta amaitu egiten diren etapak, berdinak eta aldi berean ezberdinak, etengabe errepikatzen diren pausoak. Gizakia ere zikloka mugitzen da. Hortik dator, beharbada, aldaketetarako daukagun joera naturala.

“Bizitza ausartentzat dela diote”

Orain dela denbora gutxi, urteak grafikoki nola errepresentatuko nituzkeen galdetu zidaten. Batek, etengabe luzatzen den zuzen horizontal baten bidez irudikatzen zituen. Beste batek, urte bakoitzaren hasierarekin behin eta berriro errepikatzen den segmentu bertikal baten bidez. Nik bizitza grafikoki irudikatu behar izango banu, zirkuluen bidez egingo nuke. Handiak eta txikiak, zentrokideak eta ebakitzaileak, beteak eta betegabeak... Zirkulu bakoitzak etapa bat irudikatuko luke, eta etapa bakoitzak aldaketa bat.

Nire ustez, aldaketak ez dira ez egokiak ez desagokiak, naturalak baizik. Hala ere ez da beti erraza aldaketa bati aurre egitea, eta askotan Bihar noiz etorriko den zain gelditzea da egiten dugun gauza bakarra. Baina Bihar ez da inoiz iristen.

Gure bizitzaren zatitxo bat aldatzeak, iraganetik desbideratu eta etorkizunera pauso itsu bat ematea dakar, eta horrek ausardia handia eskatzen du. Baina bizitza ausartentzat dela diote, eta ausartzen ez denak ezin izango ditu subjuntiboan idatzitako ametsak indikatibo orainaldi batengatik inoiz aldatu.

... orduan, Eva, zirkulo berri bat marrazten hasteko prest zaude?



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Emakumearen Nazioarteko Eguna bihar, martxoak 8, izango da.

Emakume eta gizonezkoen artean badago diskriminaziorik?



Marta Tejas

31 urte, langilea

Etxean eta lanean, baina nire ustez, batzuetan emakumeek gizonek baino gehiago irabazten dute. Sukaldaritzan ondo irabazten dute, eta gizonezkoek beste lan batzuetan gutxiago irabazten dute.



Nemesia Angulo

62 urte, etxeko andrea

Etxeko lanetan adibidez. Nire senarra aspaldikoa da, eta ez du etxeko lanetan parte hartzen. Eta orain 68 urterekin aldatu behar ote du? Gazteen artean gauzak aldatzen ari dira.



Karmele Gabilondo

73 urte, etxeko andrea

Gizona beti gizon izan da eta izango da. Nire ustez, gaur egun gauzak hobeko aldatu dira gazteen artean gehienbat, baina matxismoak jarraitzen du. Ez duzue uste?



J. M. Rodriguez

59 urte, espezialista

Nire ustez diskriminaziorik ez dago. Etxe barruan denetatik dago, gizon batzuek etxeko lanak egingo dituzte eta beste batzuek ez. Lanean soldata bera izan behar-ko lukete.

10^{eko}
TXIKIAN



ANTONIA
VARGAS

Ume zaintzailea

1. Herriko txokorik gustukoena? Eta zatarrena?

Elgoibarren nire txokorik gustukoena herriko plaza da eguraldi ona egiten duenean. Urasandira, berriz, gutxitan joaten naiz. Ez da batere eroso-osa umearen karroarekin eskailera mekanikoetatik igotzea. Beharbada horregatik ez dut hain gustuko.

2. Zer falta zaio Elgoibarri?

Espaloi batzuk hobetzea falta zaio. Zer hobetu beti dago herri guztietan: aparkalekuak...

3. Alkatea bazina zer egingo zenuke di-da batean?

Iskanbila eragiten duen gazteriak pena ematen du. Saiatuko nintzateke neurriak hartzen. Alternatiba gutxi daude herrian gazteentzat. Koadrilategi ondo egon zen. Baina 12 urterekin zer dute egiteko? Gazte askok burua galtzen dute.

4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Ez. Gazteak mugitzen ari dira eta berreskuratu dute danborrada. Nagusiak mugitzen ziren lehen, eta orain gazteek hartu diete lekukoa.

5. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira ekartzeko.

Trinitate eguna.

6. Bainatuko gara sekula Deba ibaian?

Ez, gainera ez dakit igeri egiten. Sasoi batean bainatzen zen jendea.

7. Ondo komunikatuta dago herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai, baina Gasteiztik Arrasaterako bidea ez zait gustatzen. Lehen hobeto zegoen.

8. Ahal izango bazenu joango zinateke beste herriren batera bizitzera?

Ez, pertsona irekia naiz, baina ez dut berriro lagunik egiten hasi nahi.

9. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanpotar batek.

Oso herri irekia da. Andaluziarrok irekiak gara. Euskaldunak itxiagoak dira, baina irekitzen direnean, betirako lagunak dituzu.

10. Ipini nota gure herriari 0tik 10era...

8 gutxienez.



Eliza ondoko iturrian ez dago urik: “Leku Eder parkean dagoen iturria askotan izorratuta egoten da eta ez da urik egoten. Ume asko ibiltzen dira hemen jolasean eta eskertuko genuke ganorazko iturri bat jartzea”.

Jendeak ez du ingurumena errespetatzen: “Bide bazterretan plastikoak eta zikinkeria ikustera ohitu gara azkenaldian eta penagarria da. Baina joan zen asteburuan ikusitakoa lotsagarria izan zen: Aiastia-San Migeletik Markinarako bidean kartoizko ardo kaxa mordoak zeuden pinudi batean botata. Elgoibarren eta Etxebarrian zabor kontenedore mordoak dago eta Aiastia-San Migelen bertan ere badago zaborra nora bota. Hala ere, norbaitek nahia go izan zuen mendia zikintzea. Ez dago eskubiderik”.




Autokarabanek aparkaleku mordoak kentzen dute herri barruan: “Gero eta jende gehiagok dauka karabana edo autokarabana, baina garajeen gorde beharrean kalean aparkatzen dute. Leku asko kentzen dute horrelako ibilgailuek eta, nire ustez, debekatuta egon beharko litzateke karabanak herri barruan aparkatzea. Azkenaldian autokarabanak hainbeste ugaritu direla ikusita, Udalak lekuren bat prestatu beharko luke herritik kanpora honelakoak aparkatzeko. Aparkaleku falta herrian daukagun arazo handienetakoa da. Bestalde, herritar gehienak autoan joaten dira Kiroldegira. Kirola egitera doaz, baina denak autoan. San Roke inguruan edozein modutan eta edozein lekutan lagatzen dute autoa. Espaloitik ere ezin izaten gara pasatu. Egoera honi irtenbideren bat eman behar zaio, San Rokeko bizilagunak nazkatuta gaude”.



Zuen kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

Berdegunen babestuak

Iturria: Europarc 2005 urtekaria



euskadin bizi naiz ni.
zu, non bizi zara?



Elgoibarko EAE-ANVk surrealizatzen du azken Plenoa

Ezker abertzalekoen protestak zirela-eta, osoko bilkura ateak itxita egin zuten

Otsailaren 28ko Udal Plenoan gertatutakoa “surrealista” izan zela adierazi dute EAE-ANVko arduradunek. Alderdi horretako Iñaki Bengoetxea eta Itziar Ibabe zinegotzien mahaiari eseri ziren, zinegotzi karguak aldarrikatzeko. Alfredo Etxeberria alkateak mahaitik altxatu eta publikoan esertzeko eskatu zienean hasi ziren ezker abertzaleko jarraitzaileen protesta eta oihuak. Ondorioz, plenoa 15 minutuz etetea agindu zuen alkateak. Protestek jarraitzen zutelarik, publiko eta prentsarik gabe Udal bulego batean eta ateak itxita amaitu zuten bilkura. Ezker Abertzaleko jarraitzaileek pleno aretoko balkoian jarraitu zuten euren aldarrikapenekin.

“Harrigarria”

EAE-ANVko arduradunen esanetan, harrigarria da Udalak euren alderdiaren kontrako mozioa aurkeztu izana: “Eta mozioa onartzeak PNV-Earen kontraesanaz azaltzeko bakarrik balio izan du, Udalean egoera ez demokratikoa dagoela azaltzeko, hemen PSOE-PPkoek



agintzen dutela erakusteko eta PNV-EA Espainiaren morroi direla adierazteko”.

Bestalde, Udalaren egoera “demokratizatzen” udal hauteskundeetan lortu zituzten 1.040 botoei dagozkien hiru zinegotziak onartzeko eskatu dute.

PPko zinegotzia haserre

Javier Nuñez PP alderdiko zinegotziak helarazitako oharrean dioenez,

“pertsonaia batzuen iskanbila gogo ezin daiteke nahikoa izan zinegotziak presionatu eta burua makurtuta pleno aretoa lagatzera behartzeko. Horrelakorik berriz ez errepikatzea espero dut. Alkateak ezin du onartu liskar bilatzaile batzuek plenoa mendean hartzea”. Alfredo Etxeberria alkatearekin bilduko da horrelako egoerarik berriro ez gertatzeko.

Inazio Bereziartua musika eskolako 31 ikasle Andoaingo piano jaialdian



Inazio Bereziartua Musika Eskolako 31 ikasle parte hartu zuten zuten jor zen asteburuan Andoaingo III. Piano Jaialdian. Horietatik 13 ikasleek urrezko dominak eskuratu zituzten eta 18k zilarrezkoak.

EAEko 70 musika eskoletako 824 piano ikasle parte hartu zuten parte jaialdian, 6 eta 18 urte bitartekoak. Irakasle, ikasle, eta batez ere, ikasleentzako estimulu handia da era honetako jaialdietan parte hartzea, Musika Eskolako arduradunen esanetan. Gainera, beste herrietako musikariak ezagutzea oso interesgarria da.

Irudia **Negua**



Zarata handirik egin gabe amaitu behar zuela ematen zuen, baina neguak ez dauka oraindik gure ondotik alde egiteko asmorik. Gogotsu agertu zaigu aste honetan, otsaila ia osorik deskantsatzen eman ondoren, indarberrituta etorri zaigu. Euria, txingorra eta hotza ekarri ditu berarekin. Aurretik, otsailaren 3an egin zuen euria azkenekoz. Azken 50 urteotan 1975eko otsaila bakarrik izan da aurtengoa baino lehorragoa. Iragarpenen arabera, negua amaitzeko geratzen diren egunak hotzak izango dira.

Zenbakia **175**

Ubitarte Burun egiten ari diren babes ofizialeko etxebizitzaren eta A-8 autopistaren artean merkatu libreko 175 etxebizitza eraikiko dituzte. Udalbatzak aho batez onartu zuen azken plenoan Ubitarte Gain Saileko UEU3ri dagokion behin betiko azterketa. 33.961 m²-ko lur eremuan merkatu libreko etxebizitzak eraikiko dituen hirigintza proiektua zehaztuta geratu zen. Bost bloke eraikiko dituzte, 12, 32, 32, 47 eta 52 etxebizitzakoa bakoitza. trenbidea gainditzeko, berriz, pasabidea eraikiko dute errailen gainetik.

Txokoa **Hauteskundeetako panelak**

Gaur gauean amaituko da Hauteskunde Orokorretarako kanpaina politikoa eta Elgoibarren behintzat, presentzia gutxi eduki duela esan daiteke. Kultur Etxe aurrean jarri dituzte orain ere progadanda elektoralarentzako panelak, baina eguaztenean hutsik zeuden oraindik. Alderdi politikoez ez dute gure herrian apenas kanpainarik egin.



Hauteskunde Orokorretako emaitzak astelehenean

BARREN astekariak martxoaren 9ko Hauteskunde Orokorren jarraipena egingo du. Astelehen goizean gehigarri berezia kaleratuko du Elgoibar eta Mendaroko emaitzak eta politikarien adierazpenekin. Gehigarria herriko okindegi eta kioskoetan eskuratu ahal izango da.

Udako Euskal Unibertsitatea

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) aurtengo udaberrirako ikastaro eskaintza egin du. Ikastaroak UEUK Eibarko Isasi-Markeskua jauregian duen egoitzan izango dira apirilaren apirilaren 2tik maiatzaren 20ra. Ikastaroari buruzko informazioa 943 82 14 26 telefonoan eskuratu daiteke. Elgoibarko Udaleko Euskarra Batzordeak diru-laguntzak emaniko dizkie ikastaroetan parte hartu nahi duten herritarrei. Informazioa, 943 74 43 66 telefonoan.

Merkatu Plazako zozketa

Rosi Torres eta Ascen Nuñezek (argazkian) 60 euroko txeke bana irabazi dute Merkatu Plazako hilerozko zozketan.



Emakumeen Eguna

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna dela-eta, hainbat ekintza izango dira egunotan herrian. Gaur iluntzean, 20:30ean ipuintxoak kontatuko dituzte Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Bihar, 13:00etan parekidetasunaren aldeko kontzentrazioa egingo da Plaza Handian. Domekan, Haizea eta Morkaikok antolatuta Okinatik Sasaetara mendi irteera izango da eta martxoaren 14an *Los lios de Gray* pelikularekin bideo forum-a izango da, 22:00etan Kultur Etxean.

Arrate Zubia eta Lurdes Zubiarre

Mendia, euskara eta 40 urtetik gorako emakumeen aldarrikapenak bultzatzen ditu Marimendik. Uztailean joango dira Elbrusera, Europako mendirik altuenera. Arrate Zubia eta Lurdes Zubiarre buru-belarri dabilta kamisetak saltzen. Lurdes ezin izango da espedizioarekin joan, baina tinko defendatzen ditu elkartearen balioak. Arratek eta Lurdesek asko zor diote orain dela bi urte eta erdi sortutako ekimenari, arlo pertsonalean batez ere. Biziberritu egiten die.

Andoni Iturbe

“Emakume arruntak gara”

Kamisetak saltzen ari zarete, baina nondik lortzen dituzue proiektueta-rako diru-laguntzak?

Txosten bat prestatu dugu eta Diputazioei diru-laguntza eskatu diegu. Baita banketxei eta Emakunderi ere. Eta gero norberak jarri beharko du dirua. 30 edo 50 hitzaldi eman genituen Mont Blancen ostean, eta orain kamisetak ditugu salgai, 10 euroren truke.

Arrate, nola prestatu duzu zure burua Elbrusera joateko?

Hilabete egon naiz zalantzan. Zera galdetzen nion nire buruari: “zer behar daukat horrelako zerbait egiteko?”. Fisikoki zure burua prestatu behar duzu. Badakit sufritu egingo dudala, baina gero ondorioak aberas-

garriak izango dira. Jendea galdetzen hasten denean urduritasun hori nabarituko dut.

Gailurrera heldu ala ez, garrantzitsuena saiatzea da, ezta?

Bai. Nik ez dut eredu izan nahi. Niretzako erronka ederra da maila pertsonalean.

Pertsonalki zer eman dizue Marimendik?

Gauza mordoa, bereziki jende berria eta adinekoa ezagutzea. Pentsa liteke ezin duzula adin batetik aurrera mendi garaietan ibili. Oso aberasgarria izan da elkarrekin egotea. Ondo konpondu gara. Heltzen da momentu bat pentsa dezakezuna dena eginda daukazula: kirol arloan, bikote harremanetan... Baina sentsazio politak izan ditzakezu mendian, bereziki elkartasuna zabalitzen bada. Zure egunerokotasuna alde batera laga eta zeu zara momentu horretan.

Beste mendizaleek emakumez osatutako taldea ikusten dutenean zer esaten dizute?

Mont Blancen batek esan zuen: “Esto parece la cola de la pescadería”. Gu gorantz gindoazen eta eurak, behe-rantz.

Isilik geratu zineten?

Bai. Ez zuen intentzio txarrekin esango. Baina orohar erantzun ona jaso dugu. Gainera ikusten dute adineko jendea



dagoela gure artean eta harritu egiten dira aterpeetan bereziki. Badau-
de emakume talde txoak baina ez gu bezain handiak, eta gainera eus-
karaz hitzegiten dugu.

Elbrusera joateko taldea osatuta dago?

Bai. Mont Blancera joan ziren batzuk ez doaz, eta beste batzuek au-
kera izan dute apuntatzeko. Hamabi kide berri sartu dira Marimendin.
Ez gara lehen bezala 20; orain 32 gara taldean, nahiz eta 24 joan men-
dira. Irteerak irekiak dira. Kontaktuak ahoz aho egiten dira.

“Elkarrekin heltzen gara gailurrera eta ez dugu elkarren aurka lehiatzen”

Zu, Lurdes, pena handiz geratu zara ezin joatean?

Bai, eta gainera Arraterekin geratzen naizenean demasako pena izat-
en dut. Ezin naiz joan bajan nagoelako, eta orain lasaiago nago. Bile-
terako giroak bizitasuna ematen du, baina ezin izan naiz bilera batzue-
tara joan. Belarriko arazotxo bat dut eta beldurra ematen dit. Hobe dut
ez joatea. Ni Marimendikoa izango naiz beti, eta elastikoak saltzen na-
bilenean esaten dut: ze pena, ezin naiz joan.

Non biltzen zarete taldekideak?

Eibarko Klub Deportiboan. Eskerrak emateko modukoa da. Hasieratik
laga digute lekua.

Nola jartzen zarete ados datak zehazteko?

E-postaz. Abenduaren hasieran elkartu ginen eta orduan talde txikiak
(sei lagunez osatuak) hartzen du ekimena, eta gero talde handiarekin
biltzen gara, erabakien berri eman eta guztien artean adosteko.

Nondik jaso dituzue kritika gehienak?

Bietatik, gizon askok kritikatu gaituzte, eta gutxietsi egin dute Mont
Blancera heldu izana. Kontuan hartu beharko lukete gu taldean heldu
ginela gailurrera, lau bideetatik joan eta bukaeran bat egin ondoren.
Denok batera heldu ginen gailurrera. Ez dugu elkarren aurka lehiatzen.
Emakumeak gara, adin batekoak, arruntak. Eta aurrera egin nahi du-
gu. Gainera etxean asko laguntzen digute.

Kirolariak izan zarete?

Ez, beti ibili izan gara mendian edo korrika egiten. Elgoibarko emaku-
me taldekook joan izan gara Kilimanjarora, Pirinioetara... Orain dela 22
urte hasi ginen irteten eta erronka polita izan zen guretzat. Gutxienez
astebukaera bat hartu nahi genuen guretzat. Horren ondotik, Marimen-
di sortu zen. Emakume baten ideia izan zen.

Norena?

Zaratamako Marian Ariarena. Behin Mont Blancera joan zen eta ikus-
ten zuen aterpe guztietan andra gutxi zeudela eta zeudenak gazteak
zirela. 40 urtetik gorako andreak gara guztiok.

Zaharrenak zenbat urte ditu?

67 urte. Gernikarra da. Helduenek emango dute *Kirola zahartze osa-
suntsu baten alde* hitzaldia Elgoibarren hilaren 11n Kultur Etxean.

Hitzaldietan zuen esperientzia entzun eta gero, zer diote emakumezko- ek?

Enbidia ematen omen diegu. Animatzeko esaten diegu. Gu ez gara
“superwomen”, emakume arruntak gara. Ilusioa dugu eta taldearen
babesa eta elkartasuna jasotzen dugu.

Elbrus

Kaukaso mendikateko sumendirik handiena da El-
brus, Europa fisikoaren ikurra: 5.642 metro ditu, Mont
Blancek baino 800 metro gehiago. Orain dela bi urte
Mont Blanc konkiskatu zuten Marimendiko kideek.
Haien artean ziren Lorea Vila, Marije Mendikute, Arrate
Zubia eta Lurdes Zubiaurre elgoibartarrak. Prestaketa
egokia eta osasun kontrol guztiak eginda, uztailaren
16an irtengo dira Moskura, Elbruseko gailurrera heltze-
ko asmoz. Moskutik, lehenengo, Mineralnye Vodira jo-
ango dira eta, ondoren, Kabardino Balkariako Errepu-
blika autonomora. Hurrengo egunetan, Cheguet mendi
inguruetan, (3.461m), Elbrusen magalean dauden Ga-
rabashi eski-estazioan (3.750m) eta Pastukhov harkai-
tzetan (4.650m), egingo dute aklimatazioa. “Bi egun be-
harko ditugu igotzeko. Teknikoki ez du zailtasun handi-
rik, baina sekulako haize boladak egoten dira eta hotz
egiten du. Azken egunean 1.700 metroko desnibela
izango dugu; malda handia da”, adierazi du Arratek.
Aurreko aldietan bezala, helburua talde osoak gailurre-
ra elkarrekin iristea izango da.



Gure berbak

Aditza (8): NOR-NORK iragana

Gaurkuan, iraganeko adizkixak ikusiko dittugu, NOR-NORK erakuak. Hauek dira Elgoibarren erabillixenak:

- Neutruak: *Lagun bat **ekarri naban** autuan Donostiatik, **ekarri zaban** harek, guk **ekarri gendun**, zuk **ekarri zenduan**, zuek **ekarri zenduen**, hárek **ekarri ze-ben**.*

- Hikakuak (giz.): *Lagun bat **ekarri najuan** autuan Donostiatik, hik **ekarri zuan**, harek **ekarri juan**, guk **ekarri genduan**, hárek **ekarri juen**.*

- Hikakuak (emak.): *Lagun bat **ekarri najonan** autuan Donostiatik, hik **ekarri zonan**, harek **ekarri jonan**, guk **ekarri gendunan**, harek **ekarri jonen**.*

Aurreko batzuetan esan izan dogu Elgoibarren hasten dirala igartzen gipuzkeraren ezaugarrixak, Mendaro, Mutriku eta Deba aldera guazen neurrian gehixago igarriko diranak. Ba, Elgoibarren hasten dan ezaugarrietako bat da 3. pertsonako aditzetan hasieran Z- erabiltzia. Eibarren, *ekarri eban* (harek), eta *ekarri eben* (hárek) erabili izan dira, eta Elgoibartik hasten da Z-hori erabiltzen: Elgoibarren, *zaban*, *ze-ben*; Mutrikun, *zuan*, *zeuen*...

Beste komentagarri bat lehen pertsona pluralari dagokixo: berez, neutruan *gendun* da, eta hikakuan, *genduan*; hala ere, zenbait hiztunek nahasixan erabili izan dittue, eta neutrorako *genduan* ere erabili izan debe.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1947

Aste honetako erretratu zaharra Frantzisko Isastik laga digu. 1947. urtean Altzolako San Juan jaietan ateratako argazkia da. Ikusten den bezala, umore eta parrandarako gogorik ez zitzairen falta mutil gazte hauei. Txapela jantzi eta trikitixa eskuan hartuta, giro ezinhobean pasatzen zituzten auzoko jaiak.

Garai batean jende asko etortzen zen Altzolara uda pasatzera. Bainuetxeagatik zen, batez ere, ezaguna auzoa, baina beste hotel mordo bat ere bazegoen. Gaur egun Altzolako San Juanak jai xumeak dira, baina auzotarrentzako egun garrantzitsuak izaten dira.

Gogora ditzagun zeintzuk diren erretratuan agertzen diren mutilak: Ezkerretik eskumara: Gerardo Iriondo, Ignacio Oñederra (†), Juanito Egaña eta Frantzisko Isasti.




I. URTEURRENA



2007ko martxoaren 1ean hil zen, 78 urte zituela, *Igancio Oñederra Uri* jaunaren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, igandean, martxoak 9, eguerdiko 12:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.





**Zapatero edo Rajoy?
Ez da gauza bera**

**PSE-EE
PSOE**



Zure botoak erabakitzen du

**alire estetika-k
ateak zabaltzen ditu**

**Martxoak 14
ostirala**

**Denok gonbidatuta zaudete
lunch batera, arratsaldeko
18:00etatik aurrera**

**Etorri eta opari bat
emango dizuegu**




**Upaiz zaharra, 1 behea
Elgoibar
Tel.: 943 531 636**

Fondoko eskia

Laponia zeharkatuko du Alberto Agirreazaldegik

Rajallte Ralle Hiito proban parte hartuko du

Bihar, martxoak 8, abiatuko da Alberto Agirreazaldegik Finlandia aldera. Zazpi eguneko proba da Rajallte Ralle Hiito eta guztira 440 kilometro izango ditu. Egunean, batez beste, 65-70 kilometro egingo dituzte. Errusiako mugan hasi eta Suediako mugan bukatuko dute. Proba amaitzea izango dute helburu partaideek, ez baita kontuan hartuko sailkapena. Lau taldeetan banatuta irtengo dira, bakoitza egun batean. 400 lagunek eman dute izena eski nordikoko hitzordu ezagun horretan. Alberto Agirreazaldegik



badu antzeko iraupen eskiko probetan eskarmentua: Marcha Lunga (Italian) eta Austriako Dolomitetan, baina egun bakarreko probak ziren haiek. Martxoaren 16an itzuliko da.

Elgoibartar gutxi aurtengo lilatoian

Inoiz baino jende gehiago izan da aurtur Donostiako Lilatoian, baina elgoibartarrak bost bakarrik. Pilar Arriola izan zen herritarrik azkarrena: 20'43 denborarekin sailkapen nagusiko 11. postuan iritsi zen. Lourdes San Martin eta Pilar de La Lama izan ziren ondorengo herritarrak. Gutxi izan arren, herriaren ohorea maila altuan laga zuten.



Pilar Arriola, Lourdes San Martin eta Pilar de La Lama.

Lerun Jatetxea xake taldea bigarren mailako ligaxkako igoera fasean da

Elgoibarko xake taldeak urrats garrantzitsua eman du Gipuzkoako bigarren mailako ligaxkara gerturatzeko. Arrasate San Andres izan dute azken aurkaria eta 3 eta 1eko emaitzarekin nagusitu ziren. Jardunaldi bat falta da ligaxka amaitzeko eta Elgoibarko taldeak lehenengo jarraitzen du 22,5 punturekin.

XI. Pilotaren Eguna izango da, bihar, martxoak 8, Elgoibarko ikastolan

Guztira 64 gaztetxok jokatuko dute bikoteka



Dagoeneko hamaigarren aldira heldu da Elgoibarko ikastolak antolatuko Pilota Eguna. Sei eta hamalau urte bitarteko gaztetxoek bihar, zapatua, jokatuko dute frontoian eta guztira 64 pilotarik eman dute izena. Biharko partidak bikoteka izango dira. Parte hartzaile guztiak jasoko dituzte garaikurrak, helburua galdu edo irabazi, gaztetxoaren artean pilota zaletasuna zabaltzea baita. Euskadiko Kutzak babes-tuko du Pilotaren Eguna.

Partiden emaitzak

Martxoaren 3an partidak jokatu ziren ikastolako pilotalekuan. Aretxabaleta nagusitu zen Elgoibarren aurka kadete mailan 22 eta 16 irabazi ondoren. Jubeniletan elgoibartarrak nagusitu ziren aretxabaletarren aurka 22 eta 5eko emaitzarekin. Nagusietan ere elgoibartarrak fin aritu ziren eta eskoriatzarrak bederatzi punturekin laga zituzten. Udaberri txapelketari dagokionez, partidak izango dira gaur 19:30etatik aurrera.

Euskadiko txapelketan lehenengo postuetan sailkatu dira arkulariak

Otsailaren 16 eta 17an jokatu zen Leioan Arku Tradizionaleko Euskadiko txapelketa. Iñaki Badiola txapel-dunorde geratu zen beteranoren mailan eta seigarren postuan arku borolbiduaren proban, absolutu mailan. Javier Varonak brontzeko domina lortu zuen arku tradizionalarekin eta Martin Agirregomezkortak zortzigarren postua lortu zuen; Espainiako 19. geratu zen Lleidan.



EMAITZAK

FUTBOLA

Zarautz 0 – Haundi 1
 Elgoibar 3 – Intxurre 1 (erreg.)
 Elgoibar 1 – Martutene 1 (jubenilak)
 Mariño 1 – Elgoibar 1 (kadeteak)
 Elgoibar 4 – Trintxerpe 1 (infantilak)
 Elgoibar 1 – Aloña mendi 1 (infantil txiki)
 Arrasate 8 – Elgoibar 1 (alebinak)
 Elgoibar 0 – BT25 1 (neskak)

ARETO FUTBOLA

Kenci 4 – Astraburuko 6 (euskal liga)
 Deutsche Schule 6 – Elgoibar 5 (jubenilak)

ESKUBALOA

Tecnifuelle 17 – IES Const. 17 (sen. nesk.)
 Urdaneta 21 – Elgoibar 30 (jubenil mut.)
 Urdaneta 28 – Elgoibar 15 (kad. mut.)
 Zarautz 23 – IMH Elgoibar 24 (kad. mut.)
 Zarautz 23 – Cometel Elg. 14 (Jub. nesk.)
 Aterpe 16 – Arrate 4 (infantil neskak)
 Caldereria Lili 6 – Aloña Mendi 18 (infantil nesk.)
 Aloña mendi 23 – H. Txarriduna 17 (infantil mutilak)
 Bergara 23 – Elgoibar 24 (infantil mutilak)
 Zarautz 5 – C. Astigarraga 23 (infantil neskak)

IGERIKETA

50m. bular neskak (1999an jaiotakoak)

- | | |
|-----------------------------|---------|
| 1. Nagore Rodriguez Arriola | 1.06.18 |
| 2. Ane Almenara Alberdi | 1.10.44 |
| 3. Elsa Astigarraga Bergua | 1.13.78 |

50m. bular mutilak (1999an jaiotakoak)

- | | |
|---------------------------|---------|
| 1. Imanol Albizu Benito | 1.05.25 |
| 2. Josue Palacios Lartain | 1.09.03 |
| 3. Iker Odria Tudanca | 1.19.72 |
| 4. Danel Mugarza San Juan | 1.20.37 |

AGENDA

PILOTA (ikastola)

Barikua, 7

19:30 Lagunak – Beharzana (kadeteak)
 22:00 Lagunak – Usurbil (nagusiak 2. maila)
 22:00 Añorga – Lagunak (nagusiak 1. maila)

ESKUBALOA (Mintxeta)

Zapatua, 7

12.15 C. Astigarraga – Lezo (infantil neskak)
 17:30 Cometel – Leizaran (jubenil neskak)
 19:00 IMH Elgoibar – Basauri (kadete neskak)

Domeka, 9

11:00 Pneumax – Askartza (jubenil mutilak)
 12:30 Tecnomeca – Askartza (kadete neskak)

AGURTZANE SOLOLUZE

Irakaslea eta artista

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira antolatu du Haizea taldeak *Seina eta luze* erakusketa. Agurtzane Sololuze eibartarra da egilea, eta Kultur etxeko hormetatik oihalak zintzilik jartzen zebilela hitz egin genuen berarekin. Emakumearen aroak erakutsi nahi izan ditu sentsibiltate handiz. Martxoaren 15era arte egongo dira ikusgai bere proposamenak.

“Artelanak sortzen jarduteak lasaitu egiten nau”



Apropos egin zenuen serie hau martxoaren 8ra begira?

Ez, egina neukan. Erakusketa honen parekoa Eibarren egin nuen, Ordukoak *Seina* zuen izena, eta oraingoari *Seina eta luze* jarri diot lan batzuk gehitu dizkiodalako.

Lan gehiago egin ahala seriea osatzen joango zara?

Auskalo, ez dakit noiz geldituko naizen, edo serie hau betiko bukatu den.

Haizea Emakume taldea Eibarko zure lana ikusi ondoren jarri zen harremanetan zurekin?

Hori da. Baiezkoa esan nuen. Aretoa ikusi nuen eta gustatu zitadan.

***Seina eta luze* erakusketan zer adierazi nahi izan duzu?**

Seina eta *luze* dantzako pausoak dira, saltoak. Mugimendu hori emakumearen zikloaren bidez adierazi dut.

Nondik hasi zara?

Ziklo bat denez ez da hasi edo amaitzen. Begira, arbolaren inguruan ikusten da emakumea, eta hortik abiatuta gaztetasunaren, haurtzaroren, eta heldutasunaren aroak erakutsi ditut. Norbera desagertzen denean sustraia nola geratzen den ere azaldu dut, zerua eta lurrarekin jokatzu.

Dramatismoa ere kontuan izan duzu?

Ez nuen asmorik, baina umeak ere ageri dira negarrez eta osagai horiek ilunagoak dira: hilerria...

Gai horiek gehiagotan jorratu izan dituzu?

Ni lanbidez irakaslea naiz, marrazketa irakasten dut, baina nire espezialitatea orientatzailea da. Biak egiten ditut. Lan hau egiteak lasaitu egiten nau, ordea.

Zer material erabiltzen duzu?

Zetazko paperarekin egin dut lan. Oihalak batzuetan zetazkoak dira eta beste batzuetan papera dute. Gehienetan bi lan batzen ditut, oihalak margotu eta josiz.

Zeta apaintzeko erabili ohi da...

Bai, erabaki nuen erabiltzea arina zelako. Gainera erraz gorde liteke. Deskubrimendu ederra izan da. Papera gogorra da, ez da apurtzen, baina aldi berean leuna da.

Orain arte zer material edo teknika erabili duzu?

Akuarela gehienbat erabili dut. Gustatzen zait arina delako eta kalean egin ahal duzulako, eta olio-pintura gutxi batzuk ere egin ditut.

Eta hor dauden egurrezko osagai horiek zer dira?

Nire aita igeltseroa zen eta lehenengo lana Elgoibarren egin zuen. Horrez gain, nire bi osabak arotzak izan ziren Elgoibarren bertan. Armairuko atea hartu ditut eta paperak eta kristalak jarri dizkiot. Aita eta osabak hilda daude, eta nolabait, euren omenez eta Elgoibarko arotzen akorduan ipini ditut.

Atxutxiamaikea aisialdi taldeak Aste Santuko ekintzetan izena emateko epea zabaldu du

Udako egitasmoa osatzeko proposamenak eta ekarpenak jasotzen ari da taldea

Aste Santurako Atxutxiamaikek antolatutako ekintzetan parte hartze-ko izenematea zabalik dago. Adin-araberako programak prestatu ditu aisialdi taldeak.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako umeek goizeko irteerak, abestiak, jolasak, mozorroak eta ikuskizunak izango dituzte martxoaren 17, 18, 25, 26, 27 eta 28an, 9:00etatik 12:30etara, Atxutxiki programaren barruan. Herri Eskolan ariko badira ere, umeak King-Kongen laga eta batu ahal izango dira. Izenemateko 35 euro ordaindu behar dira martxoaren 14a baino lehen Kutxako 2101 0036 65 0124148420 zenbakian.

Baserri eskolara irteera

LHko 3. mailatik 6.era artekoentzat, berriz, beste hiru ekintza antolatu dituzte. Bata, Zestoako Sastarrain baserri eskolara, martxoaren 26an. Baserriko lanak egiteaz gain, zaldi gainean ibiliko dira umeak. Egun osoko ekintza horretara etxetik janik ez dute eraman behar izango.

Bigarren plana martxoaren 27ko arratsaldean izango da, Sopuertako Zuhaitze-



tako abentura parkean. Hango soka zirkuitoen abenturaz gozatzeko aukera izango dute umeek. Merienda eramatea gomen datzen da.

Azkenik, martxoaren 28an Hondarribira egingo dute txangoa, Plaiaundiko txorien behatokira. Goizean hegaziak ikusi ondoren, txalupaz nabigatuko dute arratsaldean. Bazkaria eta merienda norberak eraman beharko du.

Izena emateko Elgoibarko Izarra elkarteke bulegoetara jo daiteke martxo-

aren 12a baino lehen. Ekintza batean parte hartzeak 15 euro balio du; bitan, 25; eta hirutan, 35.

Udarako proposamenak

Udara begira egitasmoa prestatzen ari da Atxutxiamaikea. Erabiltzaileei proposamenak egiteko deia egin die. Horretarako atxutxiamaikea@elgoibarkoizara.com helbidera idatzi edo telefono zenbaki honetara deitu 943 74 16 26 martxoaren 28a baino lehen.

Alzheimer gaitzari buruzko antzezlan eskainiko dute gaur, barixakua, Herriko Antzokian

Pok produkzioen antzerki emanaldia antolatu du Udaleko Kultura Sailak gaurko, barixakua. *¿Te acuerdas abuela?* izena duen antzezlanean, besteak beste, Lierni Fresnedo, Olatz beobide, Joxelu Berasategi, Mikel Laskurain eta Yannick Vergara aktoreek parte hartuko dute. Alzheimer gaitza duen emakume baten inguruko istorioa kontatzen du antzezlanak. Gaixotasunaren gordintasuna agerian gelditzen bada ere, umoreak eta fantasiak tarte zabala dute.

Gidoia Herve Jaouenek idatzitakoa da. Lanari medikuek saria eman zioten, Alzheimerri ematen zaion tratamenduagatik.



Udal Bandaren kontzertua

Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, martxoak 9, 12:30etan Herriko Antzokian. Hona-ko egitaraua prestatu dute: Salvaren *Xabia* pasodoblea, Supperen *Poeta y aldeano* obertura, Vivesen *Maruxa* zartzuelako 2. ekitaldaren preludea, Claptonen selekzioa eta Kees Vlacken *Antilliaanse Suite*.

Danborradako kartela

Kultura Batzordeak lehiaketa antolatu du Danborradako kartela aukeratzeko. Lanak "Elgoibarko Danborrada 2008" lemarekin aurkeztu beharko dira apirilaren 15a baino lehen. Irabazleak 300 euro eskuratuko ditu. Informazioa: 943 74 21 58.

LANA

ESKAERA

- Neska, pertsona helduak zaintzeko, garbiketarako edo sukaldean laguntzaile aritzeko prest. ☎ **638 338 816**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, tabernan zerbitzari, garbiketa lanetarako... ☎ **680 250 527**

- Neska, garbiketa lanetarako, nagusiak zaintzeko edo tabernan zerbitzari izateko prest. ☎ **649 368 137**
- Neska, lanerako prest. ☎ **658 400 556**

- Neska, nagusiak edo garbiketa lanerako prest. ☎ **678 939 382 / 649 212 944**

- Neska, nagusiak edo garbiketa lanerako prest. ☎ **646 821 678**

- Ingeniaritza titulatuak matematikako eta kimikako eskola partikularrak emango lituzke lauko taldeetan. ☎ **605 737 523**

- Neska gaztea, 12:00etatik 18:00etara lan egiteko prest, orduka. ☎ **659 866 116**

- Neska, nagusiak zaintzeko prest, bakarrik arratsaldetan edo gauean, orduka ere bai. ☎ **671 476 869**

- Neska tabernan lan egiteko, garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**

- Neska, sukaldean laguntzaile edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699 813 826**

- Bi neska gazte tabernan zerbitzatzeko, nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **696 665 304**

- Gizon gaztea edozein lanetarako prest: peoi, zaintzaile, sukaldari laguntzaile... Ingelese ere badakit ☎ **697 538 610**

- Neska, nagusiak zaintzeko edo orduka lan egiteko prest ☎ **686 127 137**

- Mutila, lan egiteko prest. ☎ **680 250 527 / 943 53 15 45**

- Neska, orduka lan egiteko prest. ☎ **680 250 527 / 943 53 15 45**

- Mutila, nagusiak zaintzeko, sukaldean laguntzaile aritzeko edo garbitzaile izateko prest. ☎ **608 400 998**

- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 240 038**

ESKAINZA

- Haur Hezkuntzako 1go ziklorako (0-3 urte) teknikarien lan poltsa osatzeko curriculumak behar dira.

elgoibar@kastola.net

- Sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. ☎ **943 743 196**

- Sukaldaria behar da Mendaroko kafetegia batean. ☎ **943 03 01 50**

- Artikuluak katalogoz saltzeko prest dauden laguna behar dira. Diru-sarrera ona. Esperientzia ez da beharrezkoa. ☎ **607 824 892**

- Emakume euskalduna behar da nagusi bat ordu batzuetan zaintzeko, beharrezkoa da autoa edukitzea. ☎ **699 217 721**

- Bi laguntzako bi egunetako lana eskaintzen da. ☎ **943 74 73 22 (Leire-Agurtzane)**

- Margolari autonomoa behar da. Gu-txien ez bi urteko esperientzia. ☎ **690 005 800**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia, komuna, jantokia, kalefakzioa, oso argitsua, bizitzera sartzeko modukoa. Prezio interesgarria ☎ **615 769 650**

- Urasandin pisua salgai. Hiru logela, egongela, jangela, komuna, sukaldia eta trasteroa. 89 m² ☎ **607 743 068**

- Etxea salgai Sigman. 60 m², logela bi, egongela, komuna, sukaldia handia balkoiarekin. Berritua eta oso eguzkitsua. ☎ **636 274 420**

GARAJEAK

- Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ **943 74 23 06**

MOTORRA

- Autoa salgai, Suzuki Vizara, hiru ate, 1.9. diesela, 2000. urtekoa. ☎ **943 25 43 66** (14.00etatik aurrera deitu) / **654 949 123**

- Motorra salgai Shooter Aiyumo, 125 cc. ditu; sei hilabete eta bermearekin. ☎ **670 957 036**

- Motorra salgai 49 cc. ea 1000 kilometro. 2007ko abuztuan matrikulatua. Osagaiak: kaskoa, doan lapurreten aurkako kanda, atzealdeko arkoia. ☎ **663 117 444 / 943 74 40 31**

- Ford Focus 2.0 16v. 130 zaldi. Llantak, Pionner irratia, beltz metalizatua, egoera oso onean. 5.500 euro negoziagagarriak. Transferentzia nire kontu. ☎ **660 056 240**

- Citroen saxo diesela salgai. ☎ **639 572 532**

- Mutrikun ezarritako karabana salgai. Extra asko. ☎ **943 74 39 23 / 629 415 984**

- Ford Focus Berlina salgai, TDI, 2001. urtekoa. ☎ **630 151 231**

- Karabana salgai. 7 metrotakoa, kalefakzio eta ur berogailua, komuna, dutxa eta sukalde osoa kanpoan. Mutrikuko Santa Elena kanpian jarrita dago. ☎ **652 750 361**

BESTELAKOAK

- Alemaniarako 19 urteko neska batek bi hilabeteko egonaldirako familia behar du *au pair* egoteko. ☎ **635 706 537**

- Eraztuna galdu da, balio sentimental handikoa, Jai Alai tabernan otsailaren 23an. Aurkitu duenak udaltzainei laga diezaiola. ☎ **943 74 44 83**

- Etetresna elektrikoak, altzariak, oherako erropa... behar dira. ☎ **676 444 171**

- Balkoi batetik erori da kamiseta polar gorri-naranja. ☎ **943 74 18 34**

- Zero Sette trikitixa erosiko nuke. ☎ **655 742 836**

- Garaikurrak grabatzeko hiru makina frantziar saltzen dira. Galagarza Erlondendana salgai.

- Pisua konpartitzeko laguna behar dugu. ☎ **610 458 552 (Norea)**

- Deban alokairurako pisu bat behar dugu. ☎ **636 690 861**

- Pisu txiki baten bila gabiltza alokairuan hartzeko Elgoibarren. ☎ **699 637 269**

ABISUAK

- Erretxindin argazki kamera lapurretan egin zuten hilaren 12an, arratsaldeko 19:00ak eta 21:00ak bitartean. Txartela duenak laga dezala Correoseko 178 posta-kutxan.

- Sofa bat eta bi besaulki oparitzen dira, multzoan. Baita ohe handi bat ere. Galagarza erloju-dendan galdetu.

- Baratza konpartitu nahi dut, alde zaharretik gertu dago. Ura du, simaurra eta lan egiteko erremintak. ☎ **655 723 678 / 943 74 39 19**



BEKAK

ENPRESA

SEPI Fundazioa. Diplomatu eta lizentziatuentzako, enpresa hastapen programa. Epea: ekainak 30.

TEKNOLOGIAK

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Informazioa eta komunikazio teknologia hezkuntzan aplikatzeko 9 beka. Epea: martxoak 19.

LEHIAKETAK

GOMENDIO LEHIAKETA

Gomendatzen dizut, merezi du lehiaketa. Gipuzkoako hainbat Gazte Informazio Bulegok parte hartzen dute. Informazio gehiago www.aizue.com blogean. Epea: irailak 30.

LANA

PEOIA

Bergarako Udala. Obra eta zerbitzuentzako peoi lanpostua. Epea: martxoak 11.

UEU

Udako Euskal Unibertsitateko Iruñeko egoitzan teknikari bat behar dute. Epea: martxoak 10.

KULTUR LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala. Probak martxoaren 12an egingo dira, goizeko 10:00etan Arrasateko udaletxean.

GIZARTE HEZITZAILEAK

Ostargi Elkartea. Gipuzkoako herrialde batzuetan garatzen ari diren giza-heziketa programetan lan egiteko gizarte hezitzaileak. Epea: martxoak 14.

ZAINTZAILEAK

Uliazpi fundazioa. Aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko zaintzaileen lan-poltsaren dieldia. Epea: martxoak 24.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan. e-posta: gib@elgoibar.org

☎ **943 74 14 61**

Martxoak 17tik 28ra itxita egongo da. Martxoak 31tik aurrera, ordutegi berria.

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:

11:00etatik 13:00etara

Astelehenerdik ostiral arratsaldetan:

16:00etatik 19:00etara.



• Zorionak, **Adel**, etzi 4 urte egingo dituzulako. Lau muxu handi etxekoen eta Oxelen partez.



• Zorionak, **Irati**, 4 urte egin dituzulako. Muxu handi bat Urko eta familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Markel**, asteartean 2 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki Gaizkaren partez.



• **Txix**, iritsi da zure ordua (Los Tres Mosqueteros)



• Zorionak, **Joseba**, 2 urte egin zenituelako. Etxeko guztien eta batez ere Eleneren partez.



• Zorionak, artista tximista 9 urte egin dituzulako. Ono pasa zure egunean eta muxu piloa danon partez.



• Zorionak, **Iker**, zure lehenengo urtebetetzean, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Aner**, bihar 11 urte egingo dituzulako. Familiaren eta bereziki arreba Laidaren partez.



• Zorionak, **Aitor**, hilaren 2an 10 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Andoni**, atzo 12 urte egin zenituelako. Lagunen eta familia osoaren partez.



• Zorionak, **polita!** Ono pasa zure seigarren urtebetetzean, zure familia osoaren konpainian.



• Zorionak, **Iker**, martxoaren 5ean 10 urte egin zenituelako, etxekoen eta bereziki Andoniren partez.



• Zorionak, **Nora**, 8 urte egin dituzulako. Patxo handi bat.



• Zorionak, **Jone eta Eneko**, etxekoen partez, zuen urtebetetzea izan baita.



• Zorionak, hilaren 5ean eta 10ean zuen urtebetzea delako. Familiakoen eta batez ere alproja, sorgintxo eta pitxonzitaren partez.



• Zorionak, **Helene eta Eneko**, hilaren 2an 3 urte egin zenituztelako. Muxu asko familiaren eta bereziki Aitanaren partez.

Haur eta gazteen PAZKO ASTEKO AGENDA			
DATA	LUDETEKA	DATA	GAZTELEKUA
Martxoak 16 Igandea	HAUR KABARITA ikuskina. Austerri irteera: 15:45ean. Ludotekaren Prezioa: 20€	Martxoak 16 Igandea	Paradisu sinema Gaztebarran 18:30ean
Martxoak 17 Astelehena	SAN LORENTEZORA irteera: 16:30ean kutxetarako. 19:30ean bueltan gaudu.	Martxoak 17 Astelehena	ITXITAV
Martxoak 25 Asteartea	Donostia egun parafil KRISTINA ENEA partez eta IGELDORA, 10:00etan kutxetarako irteera eta 20:30ean bueltan gaudu kutxetarako. Prezioa: 50€	Martxoak 25 Asteartea	Ondaregintza Aki, Autobus, topogintza, erudunak. Lagunei deitu geroztatu!
Martxoak 26 Asteazkena	Emakumeak 16:30etik aurrera	Martxoak 27 Osteguna	Dabonaria KARTELARA irteera!! 14:45ean Kingkongeko gelotikan. Prezioa: 12€
Martxoak 27 Osteguna	Suskegintza taldea Urrutimendi	Martxoak 29 Zapateria	SKATE eta PATINAK Urusantzi. 17:00etatik 20:00etara. Skate eta patinak eraman!
Martxoak 28 Ostirala	KARADKEA Lurtebarran	Martxoak 30 Domeka	Dunó lehenetsi. 17:00etatik aurrera

LUDETEKA

GAZTELEKUA

Ekintzetan izena emateko epea:
MARTXOAK 12
 Ludotekan (943 74 88 83) eta
 Gaztelekuan (943 74 32 28)

OKINDEGIA

9 igandea **IBARRA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 7 Etxeberria (*Santa Ana*)
- 8 Bidasolo
(*Goizez Fernandez)
- 9 Fernandez
- 10 Zabaleta
- 11 Yudego
- 12 Etxeberria (*Errosario*)
- 13 Ibañez
- 14 Bidasolo

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.net/en

7 barixakua

17:00 Mahai jolasak

Gaztelekuan

17:30 Sukaldaritza tailerra

Ludotekan

19:00 Ikastolako ikasleen jaialdia

LHko ikasleen jaialdia Ikastolako frontoian.

19:30 Piano kontzertua

Itziar Beitia Amondarainek eskainiko du.
Musika Eskolako Auditorioan.

20:30 Ipuintxoak eta luntxa

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:15 Antzerkia

Pok produkzioak taldearen *Te acuerdas abuela?* antzezlanaren Herriko Antzokian.

8 zapatua

10:30 Pilota Eguna

XI. edizioa izango da aurtengoa. Elgoibar Ikastolan.

13:00 Kontzentrazioa

Emakumearen eguna dela-eta, parekidetasunaren aldeko kontzentrazioa.
Plaza Handian.

17:30 Sexualitate tailerra

Neskentzako, Gaztelekuan.

9 domeka

9:30 Mendi irteera

Haizea eta Morkaikok antolatuta, Okinatik Sasaetara mendi irteera. Bazkaria Estibalizko monastegian.

12:30 Musika Bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

11 martitzena

16:30 Talde jolasak.

Euskal Herritik mundura. Ludotekan.

17:00 BARREnera bisita

Gaztelekutik

10:00 Hitzaldia

"Kirola zahartze osasuntsu baterako bidea" hitzaldia eskainiko dute Marimendi taldekoek Kultur Etxean.

12 eguaztena

16:30 eta 18:30 Zine emanaldia

Ludotekan

17:00 Eskulana Gaztelekuan

Mugikorren zorroak egiteko eskulanak.

19:00 Hitzaldi-erakusketa

"Hego Amerika motoan, Cheren bidetik" hitzaldi-erakusketa eskainiko du Anjel Cuerdok. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

ESKERTZA



Isabel Arrieta Orbegozo

2008ko otsailaren 20an hil zen

*Aritza-n jaioa,
Izarraitzen magalean.
la mende bat egin duzu
lagun ta famili giroan.
Orain utzi gaituzu
saminez ezustean.
Betirako izango zara
gure bihotzean.*

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



13 eguena

17:00 BARREnera bisita

Gaztelekutik.

19:00 Kontzertua

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako talde instrumentalek eskainiko dute. Musika Eskolako auditorioan.

19:30 Jardunaldiak

Euskal Herriko IV. jardunaldi feministen aurkezpena.

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

14 barixakua

22:00 Bideo Forum-a.

Haizeak antolatuta, *Los lios de Gray* pelikula izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Hizlaria: Eskarne Larrinaga.

Gure gomendioa

Udal Musika Bandaren kontzertua

Martxoak 9, domeka, eguerdiko 12:30ean Herriko Antzokian

Musika zaleek Herriko Antzokian dute zita domekan. Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du, hilerio bezala. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean egitarau zabala prestatu dute emanaldi honetarako:


1- *Xabia (Pasodoblea)*. Egilea: S. Salva

2. *Poeta y aldeano (obertura)*. Egilea: Fran V. Suppe

3. *Maruxa (Preludioa, 2. ekitaldia)*. Egilea: Amadeo Vives

4. *The cream of Clapton (selekzioa)*. Egilea: Eric Clapton

5. *Antillianse suite*. Egilea: Kees Vlask



«Los crímenes de Oxford»
8, zapatua: 19:00-22:15
9, domeka: 19:00-22:15
10, astelehena: 21:30

«El arca de Noe»
9, domeka: 16:30

«4 meses, 3 semanas, 2 días» (Z.K.)
13, eguena: 21:30

Burdindegia Etxea

MIG

Lokal aldaketa!



Tel.: 943 740 831
Saltoki berria: Trenbide kalea 9
Giltzak - Etxeko menajea

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Otsaileko irabazlea:
**KURUTZ
CASTRILLEJO**

Martxoako saria:
**MASAJEA
+
PEDIKURA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

grafitia

Errazu bertso eskolako kideak

ESPERANTZAREN HAZIA

Doinua: Txakurraren
partia (Txurikorenak)



Gogorra izan dugu
aurtengo negua
Laino beltzek estali
baitute zerrua
Odol tantaz bustia
dago ingurua
Aldatzen has gaitezen
Heldu da ordua

Politikan bakea
urrun dago antza
indarkeri matxista
ere ez da txantxa
injustizien kontra
behar gara altxa
Udaberrian lora
dadin esperantza



Bidali zure oihua, kexa, aldarrikapena, marrazkia edo nahi duzuna, eta BARREneko horman jarriko dugu. Helbidea: barren@elgoibarkoizarra.com

Grafitian parte hartzeko izen-abizenak eta telefonoa eman behar diguzue, derrigorrez. Zure izena bistaratu ala ez, berri, aukeran lagako dizugu.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegi
eta
ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



TEXTIL HOGAR · KOLTXOI DENDA

LAGUNAK

ESKAITZA MUNDIALA

% 15

BEHERAPENA

- ✓ BURKOETAN BETEGARRI
- ✓ NORDIKOETAN
- ✓ KOLTXOI ESTALIAK

(Ikus mota eta neurri guztiak)



Marrazkiaren erabilera eratorritako irudiak ez dira erabiltzen.

LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com

